

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Araian futbol zelaia eraikitzeako obren lizitazio berria

Araian futbol zelaia eraikitzeako obren kontrataziorako administrazio klausula berezien agiri berria onartu ondoren, jendaurrean jartzen da lau egun baliodunez, Asparreneko Udalaren erregistro orokorrean (Herriko enparantza, 1, Araia), interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Aldi berean, kontratu horren lizitazioa deitzen da. Dena den, lizitazio hori atzeratu egingo da, erreklamaziorik aurkezten bada.

1. Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Asparreneko Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1. Bulegoa: Asparreneko Udala.

2. Helbidea: Herriko enparantza, 1.

3. Herria eta posta kodea: 01250 Araia.

4. Telefonoa: 945-304006.

5. Faxe: 945-314150

6. Posta elektronikoa: aasparrena.inaki@ayto.araba.eus

7. Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.asparrena.eus eta www.euskadi.eus

2. - Kontratuaren xedea:

a) Kontratuaren deskribapena eta xedea: belar artifizialeko futbol zelai bat eta haren instalazioak eta urbanizazioa eraikitzeako obrak, Ramón Ruiz-Cuevas arkitektoak eta haren laguntzaile José Ignacio de Rosendo, Gerardo Molpeceres, Aritz Eriz eta Joseba Aranzábalek idatzitako gauzatze proiektuaren arabera, bai eta "argiztapena eta elektrizitatea" eranskina ere, argiztapen dorreen instalazioei dagokiena.

b) Gauzatzeko epea: 4 hilabete gehienez.

c) Luzapenaren onarpena: ez.

d) Gauzatzeko lekua: Araia.

e) CPV: 39293300-5 belar artifiziala

3. - Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: presazkoa.

b) Prozedura: irekia, zenbait esleipen irizpiderekin. Hona hemen horiek:

A. Automatikoki zenbatu daitezkeen irizpideak handienetik txikienera puntuatuko dira:

— Proposamenaren ekonomia balioespena eta haren zergatia: eskaintzarik onenari 35 puntu, ondorengoak proportzionalki balioetsiko dira, onenetik txarrenera, formula honen arabera:

$$\frac{(\text{balioesten den eskaintza} - \text{eskaintzarik onena}) \times 35}{\text{Eskaintzarik onena}} = \text{aldea}$$

35 – Aldea = balioesten den eskaintzak jaso dituen puntuak

– Obraren berme epea luzatzea: agirian zehaztutako gutxieneko bost urteetatik gorako bakoitzeko 3 puntu. Gehienez: 15 puntu.

– Ingurumen kudeaketaren ISO kalitate araua aplikatu dela egiaztatzea: gehienez, 2 puntu.

B. Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak:

– Soropil edo zelai artifiziala hobetzea: gehienez, 26 puntu. Honako era honetan xehakatuta:

– Eskainitako materialaren ingurumen jasangarritasuna, jatorria kontuan izanik; hura zaintzeko behar diren baliabide naturalak eta soropil sistemaren osagaien birziklagarritasuna: gehienez, 12 puntu.

– Proiektuaren belar motaren kalitatea hobetzea (izpiaren akabera, pizarraren zabalera, izpiaren pisua eta trinkotasuna): gehienez, 6 puntu.

– Materialaren zahartze hobea –zikloak ebaluatzea eta iraganaldiak–: gehienez, 4 puntu.

– Zaintze erraztasuna eta materialaren zainketa: gehienez, 4 puntu.

– Gauzatzeko proposamen teknikoa: gehienez, 16 puntu. Honako era honetan xehakatuta:

– Obra egiteko era eta haren garapena, erabili beharreko eraikitze metodoak, hornitzaileen deskribapena, hornitzaileen konpromiso eskutitzak, enpresa azpikontratatzaileak, laguntzaileak, giza baliabideak eta obran erabiliko diren materialak: gehienez, 6 puntu.

– Obra plana (obra unitateko): gehienez, 5 puntu.

– Azterketa geotekniko homologatua egiteko konpromisoa, zimendatzea optimizatzeko eta plano topografikoa/planimetrikoa: gehienez, 5 puntu.

– Kirol ekipoa hobetzea: gehienez, 6 puntu.

4. - Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua: kontratuaren aurreikusitako balioa 414.456,64 euro, gehi 87.035,89 euro BEZarenak. Guztira, 501.492,53 euro.

5. - Eskatutako bermea: ez da behin-behineko fidantzarik eskatzen. Behin betiko bermea esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da (BEZa aparte).

6. - Kontratatzen berariazko betekizunak: ezinbestekoa da enpresa sailkapen hau izatea: G taldea (bideak eta pistak), 6 azpitaldea (sailkapen berezirik gabeko bide obrak), D kategoria eta I taldea (instalazio elektrikoak), 1 azpitaldea (argiteria, argiztapenak eta argi balizajeak), D kategoria

7. - Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 13 egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aurkezteko modua: paperean.

c) Tokia: Asparreneko Udalaren erregistro orokorrean.

d) Helbidea: Herriko enparantza, 1.

e) Herria eta posta kodea: 01250 Araia.

f) Posta elektronikoa: aasparrena.inaki@ayto.araba.eus .

8. - Eskaintzak irekitzea: B gutun azala eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo laugarren egun balioduneko 10:00etan irekiko da ekitaldi publikoan. Lizitatzailerei sasoiz jakinaraziko zaien eta kontratatzailearen profilean iragarriko den ekitaldi publikoan irekiko da C gutun azala.

9. - Publizitate gastuak: esleipendunak ordainduko ditu, 350 euroko mugarekin.

Araia, 2017ko irailaren 12a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ